



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2018ko abenduaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta hauen zirriborroak: 2018ko uztailaren 24ko eta azaroaren 13ko ezohiko bilkuretakoak eta 2018ko urriaren 30eko ohiko bilkurakoa.



- 2.- Abenduaren 19ko 599/2018 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 7/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Abenduaren 19ko 600/2018 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 8/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Javier Regalado Herrero arkitektoak idatzitako Oriko udalerriko irisgarritasun-planaren berrazterketa puntuala.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren euskararen erabilera-plana, 2018-2022 aldirako.
- 7.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Dikeko Kontzertazio Batzordeak, Oriko Arrantzaleen Kofradiak eta Oriko Udalak sinatuko duten plangintza eta kudeaketako hitzarmen urbanistikoa.
- 8.- Baimena ematea, egoki bada, Oriko udalerriko kale-garbiketa kontratuaren lagapena egiteko FCC Medio Ambiente SA enpresaren alde, FCC, SA enpresa adjudikaziodunak eskatu duen bezala.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HAUEN ZIRIBORROAK: 2018KO UZTAILAREN 24KO ETA AZAROAREN 13KO EZOHICO BILKURETAKOAK ETA 2018KO URRIAREN 30EKO OHIKO BILKURAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, akten zirriborroei inolako oharrik egiten ez zaienez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2018ko uztailaren 24ko eta azaroaren 13ko ezohiko bilkuretakoak eta 2018ko urriaren 30eko ohiko bilkurakoa.

2.- ABENDUAREN 19KO 599/2018 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 7/2018 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 77.826 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ABENDUAREN 19KO 600/2018 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 8/2018 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 103.540 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONTRATAZIO-ESPEDIENTEEN KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAKETA, KONTRATAZIO-ORGANOA UDALBATZARRA DENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2018ko azaroaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean. Kontratazio-mahaia honela osatuko da:

- Presidente titularra: Jose Angel Zaldua Iparraguirre alkatea.
- Presidente ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo lehen alkateordea.
- Mahaikide titularra: Jon Carrera Jauregi idazkari-kontu-hartzailea.
- Mahaikide titularra: Pilar Azurmendi Etxegarai arkitektoa.
- Mahaikide ordezkoa: Amaia Usandizaga Manterola arkitekto teknikoa.
- Idazkaria: Ibai Lertxundi Iribar Idazkaritzako aholkulari juridikoa.
- EH Bildu, Orain eta PSE-EE talde politikoetako ordezkari banak ere izango du Kontratazio-mahaian parte hartzeko eskubidea, ahotsarekin baina botoa emateko aukerarik gabe.



5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, JAVIER REGALADO HERRERO ARKITEKTOAK IDATZITAKO ORIOKO UDALERRIKO IRISGARITASUN-PLANAREN BERRAZTERKETA PUNTUALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza eta Ingurumeneko Batzorde Informatzaileak 2018ko azaroaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Javier Regalado Herrero arkitektoak idatzitako Orioko udalerriko irisgarritasun-planaren berrazterketa puntuala.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA-PLANA, 2018-2022 ALDIRAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara Batzorde Informatzaileak 2018ko abenduaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren euskararen erabilera-plana, 2018-2022 aldirako.

2.- Euskararen erabilera-planaren jarraipen-batzorde bat **ERATZEA** Orioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko kideek osatuko dutena.

7.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, DIKEKO KONTZERTAZIO BATZORDEAK, ORIOKO ARRANTZALEEN KOFRADIAK ETA ORIOKO UDALAK SINATUKO DUTEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETAKO HITZARMEN URBANISTIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Azaroaren 6ko 519/2018 alkate-dekretuaren bidez honako hau erabaki zen:

1.- Lehen onarpena ematea Dikeko Kontzertazio Batzordeak, Orioko Arrantzaleen Kofradiak eta Orioko Udalak sinatuko duten plangintza eta kudeaketako hitzarmen urbanistikoari.



2.- Hitzarmen urbanistiko horren testu osoa JENDAURREAN JARTZEA, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, interesatuek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko 20 laneguneko epean.

Hitzarmen urbanistiko hori 2018ko azaroaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (222 zenbakia), jendaurrean jartzeko.

Jendaurreko epearen barruan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2018ko abenduaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Dikeko Kontzertazio Batzordeak, Orioko Arrantzaleen Kofradiak eta Orioko Udalak sinatuko duten plangintza eta kudeaketako hitzarmen urbanistikoa, aldaketa bakar honekin: hitzarmenaren 5. aurrekarian akats bat zuzendu da eta zona horren eraikigarritasunari dagokion zatian «residencial» hitza kendu da.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen urbanistiko hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribarrek hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du hitzarmen urbanistiko honen gaiak urtebeteko ibilbide luzea egin duela eta nabarmentzekoa dela Udala osatzen duten taldeek hitzarmena onartzeko egin duten ahalegina eta adostasuna lortzeko erakutsi duten borondatea.

Emeterio Iribarrek, bestalde, eskerrak ematen dizkie Dikeko Kontzertazio Batzordeko eta Orioko Arrantzaleen Kofradiako kideei, hitzarmen urbanistiko hau behin betikoz onartu dadin ados jartzeko erakutsi duten borondateagatik.

Emeterio Iribarrek bukatzen du, esanez bere talde politikoak espero duela aurrerantzean ere, adostasunez eta borondate onez garatu ahal izango dela hitzarmenaren edukia.

8.- BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO KALE-GARBIKETA KONTRATUAREN LAGAPENA EGITEKO FCC MEDIO AMBIENTE SA ENPRESAREN ALDE, FCC, SA EMPRESA ADJUDIKAZIODUNAK ESKATU DUEN BEZALA.

Udalbatzarrak Orioko kale-garriketa zerbitzuaren kontratuaren lagapenari dagokion espediente administratiboaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2018ko abenduaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- Baimena ematea segidan aipatzen den kontratuaren lagapena egiteko; lagapena hartzen duenak, FCC Medio Ambiente SAK, bere gain hartzen ditu lagapena egiten duen enpresak, FCC SAK, zeuzkan eskubide eta betebeharrak guztiak. Hauek dira kontratuaren datuak:

- Xedea: Orioko kale-garbiketa zerbitzuaren kontratua
- Adjudikaziodun lagatzailea: FCC SA
- Lagapena hartzeko proposatzen dena: FCC Medio Ambiente SA
- Urteko adjudikazioaren zenbatekoa: 281.744,99 euro.
- BEZaren zenbatekoa: 28.174,50 euro.
- Behin betiko bermearen zenbatekoa: 84.523,50 euro.

2.- Deklaratzea FCC Medio Ambiente SA lagapen-hartzailearentzat indarrean egongo direla bere garaian Orioko kale-garbiketa zerbitzuaren kontratua FCC SAKen alde adjudikatzerakoan ezarritako preskripzio teknikoak eta baldintza administratiboak, eta FCC Medio Ambiente SAK guztiz bete beharko dituela.

3.- Adieraztea adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean eskritura publikoa sinatu behar dela, lagapena formalizatzeko; horren kopia autentikatua bidali beharko zaio kontratazio-organoari hilabeteko epean, lagapena egiten denetik kontatuta. Lagapen-hartzaileak akreditatu beharko du, baita ere, kontratuaren behin betiko bermea bere izenera mantentzen duela.

4.- Erabaki honen berri ematea kontratuaren lagatzaileari eta lagapen-hartzaileari, aurkeztu ditzaketen errekursoak azalduz.

5.- Behin lagapena formalizatuta, dagozkion ohar kontableak egitea, gastua konprometituz enpresa lagapen-hartzailearen alde.

6.- Erabaki honen berri ematea Udal Zerbitzu Teknikoei, Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, jakiteko eta aintzakotzat hartzeko.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei, urte berri ona opa die eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,